

EOLIKOEN MOZIOA

Zer nahi da guk postura bat hartzea, erretratatzea oraindik proiektua aurkeztua ez dagoenean? Proiektu basikoak esango du, dagoenean, batez ere eta besteak beste sortzen den energiaren ebakuazioa nola egin. Horrek eta beste hainbat puntuk baldintzatuko dute gure behin betiko postura gaiarekiko.

Gu energia eolikoaren alde gaude eta garbi dugu baita ere inpaktua ahalik eta gutxiena izan behar duela ingurugiroan.

Askotan “non jarri?” horretan jartzen dugu fokoa eta, zer babestu behar dugun? Hau ere oso garrantzitsua da. Mozio honek ere hori babesten du...

Indarrean dagoen LPSak (Lurralde Planifikazio Sektoriala) argi uzten ditu babestutako guneak zeintzuk diren.

Dena da ondarea... dena da mendi kuttuna... bai. Hau muturreraino eramanda, eolikoaren aurka geundeke. Eta ustez behintzat, denak gaude gaiarekin sentibera eta beharra ikusten dugu energia berriztagarriak behar beharrezkoak ditugula. Bitartean zer? Aldundiak ere lur-zoluen balio handiko babes maila hor dauka, lokalismoak lokalismo, ba interesen konfliktua dago.

Urtero eta familiko orduan 3 MB gastatzen ditugu. Bizitza ohiturak aldatzeko ez dakit prest gauden... ezetz esango nuke.

Elektrointensiboak gara. Gure industria ere elektrointensiboa da.

Bai... baina ez nire etxean, (*Si, pero no en mi jardin*). Hori ere gertatzen da.

Bide batez, Europako Batzordeak energia nuklearra energia berdea kontsideratu du. Batzuk alde egongo dira eta besteak aurka. Hemen bi hildako ere eragin zituen energia nuklearraren aurkako mugimenduak.

Energiaren sorreraren %90ean dependienteak gara. Eta hau aldatu behar dugu.

EH Bilduko Otero legebiltzarkidea prest omen dago Tapia sailburuarekin adosteko sortzen den energia berriaren %20 herritarrentzako bideratzen bada. Ez du moratoria eskatzen EH Bilduk baina PTS-an (lurralde plangintzan) egon daitezkeen arazoak konpontze bidean jarri beharko liratekeela eskatzen du.

Pedagogia egokia egin beharra dago. Ez da fatalidadea balitz bezala ikusi behar! *Laberinto energetico vasco...* idatzi zuen Mario Onaindiak. Eta egia da, azken 20 urteetan denak aldatu gara zerbait... EH Bilduk ere aldatu du eolikoaren aurrean zeukan ikuspuntua. Lehen sabotaiak ere egin zituen eta orain, zorionez, beharrezkoak ikusten ditu. Guk bezala, ez edozein preziotan baina beharrezkoak ikusten ditu.

Orain arte Zestoan zer egin da gai honen inguruan: ... aurrena desmarkatu, gero ezetz esan komunikatu batekin: *Garraioan egon daitezken arazoak kezkatzen gaituela esanez, besteak beste...*

Proiektuaren zain egon beharra dugu eta baita hurrengo urteko martxorako etorriko den gaiaren PTS-a edo lurralde plangintzaren zain. Dena dela, Eolikoaren PTS-a indarrean da. Aldundiak eta beste tresna asko daude babesteko. Mendia eta ingurumena zaindu beharra dugu, baina energia trantsizioa bete behar dugu eta berandu goaz. Egitasmo txiki, ertain eta handiak behar ditugu. Etxeetako eguzki plaketatik hasi, komunitate energetikotatik pasa eta azpiegitura handietaraino. Eta gure orografiak ez digu errazten. Lurralde antolaketa bat beharrezkoa da eta ordenatua izan behar du.

Naturalak eta kulturalak diren gauzak babestu behar ditugu. Ezin da edozer gauza egin edozer preziotan. Proiektuak egin aurretik ingurumenari egingo zaion kalte edo inpaktua aztertu eta onetsita egin beharko da. Baita obrak egiterako garraioa eta bere eraginak ere.

Herrian egiten diren beste hainbat proiektu bezala, ingurumen sailak, besteren artean, bermea eman beharko dio proiektuari.

Eraldaketa energetikoa behar da. Arazoaren parte izan bagara, konponbidearen parte ere izan behar dugu. Ezin diogu bizkarra eman proiektu eolikoei, bermatzen badute inpaktua kontrolatua eta aztertua izango dela behintzat.

Komunitate energetikoak sortzen ari dira eta behar beharrezkoak izango dira seguruenik guztiak etorkizunean. Sarea osatzeko ordea energia sortu beharra dugu. Ez da negozio eredu berri bat... beharrezkoa den neurri bat da eta energiaren demokratizazioa dakarrena ere bai.

Burujabetza energetikoa behar edo nahi badugu, energia berria sortu beharra dugu.

Guk eskatzen duguna da, horrelako proiektu bat aurrera ateratzen bada, promotoreekin hitz egin eta herrian ditugun zerbitzuen energia emateko balio dezala. Guztion onurarako diren zerbitzuen argindarra hornitu dezala proiektuak.

Garbi gera dadin, guk ez diogu itsu-itsuan baietza ematen eta emango. Enplazatzen dugu Udala, Starkraft enpresarekin harremanetan jarri eta denoi, proiektua eurkeztu diezagun hitzordua jarri dezala.